


## IRAKURGAIK

### ASTELEHENA

Igandea joan da poz eta bakean.  
Gaua igaro dugu lo lasai batean,  
baina ama gelara deika joatean,  
ai! Zer giro epela izara artean.



Amak goxoko dio: "jaiki zaitez, Marta!  
Bota zure albora maindire eta  
manta,  
aurpegia garbitu nagiak lagata,  
zoaz ikastolara, astelehena da eta".



### ASTEARTEA

Astelehen arratsean gurasoen  
hitza:  
"Oheratu aurretik gaueko otoitza,  
ametsezko munduan murgilduz  
bakoitza".  
Esnatu garenean, astearte goiza.




Eguzkia badator itxura lasaian,  
leihoa ireki dut nik bero –  
usainean,  
txoritxo bat ari da abesti alaian,  
egun sortu berria alegratu  
nahian.

## ASTEAZKENA



Gaur azoka-eguna dela dugu jakin.  
Ama ere prestatu zaigu poltsarekin.  
Esan dit: "jantzi zaitez bizkor eta arin,  
eta joango gara biok elkarrekin".

Ilusio bateab goiza pasa behar,  
zenbat jostailu eder azokatik zehar.  
Amak bere haurrentzat zerbait beti dakar,  
ikusteko etxera nik joan nahi dut azkar.



## OSTEGUNA

Andereñoak badu bere kapritxoa,  
egin behar dugula gar antzerkitxoa.  
Edurne izango da Txano-Gorritxoa  
eta Ander basoan bizi den otsoa.



Mirari izango da Edurneren amona,  
Kepa dugu mendiko ehiztari gizona.  
Beldurgarria, baina polit eta ona;  
eskerrak hau guztia izan dela broma.

## OSTIRALA



Egun alaigarria beti ostirala,  
astearen azkena dator berehala.  
Gure alaitasuna ez dugu makala,  
pentsatuz bihar bertan jai izango  
dela.

Kantu-saio batean hartu dugu  
parte,  
elkar besarkaturik, maitasunez  
fuerte.  
Agur Jon, agur Maider, Jokin eta  
Maite...  
Agur, andereñoak, astelehena  
arte.



## LARUNBATA


Beste lasaitasun bat dugu gaur  
gurekin,  
baserrirako asmoz amak dit  
hotsegin:  
"Han dira amona Pilar eta aitona  
Martin,  
haiei bisitatxo bat behar zaie  
egin".



Baserri-atarira heldu ordurako,  
Txakur "Pitxintsu" pozik da  
jolaserako.  
Eskupekorik ere ez zaigu faltako,  
jaietarako eta eltze txikirako.

## IGANDEA

Berriro igandea udako denboraz,  
mendira haize eta eguzki gogoaz.  
Gurasoek atsedeen eta hurrek  
jolas,  
gero trasteak bilduz etxerantza  
goaz.



Nekatu gara eta agudo etxera,  
horrelaxe da gure aste bukaera.  
Aita-amak berriketan eta gu  
ohera,  
beste egun bat dugu bihartik  
aurrera.



## UDABERRIA

Joan den asteaz geroztik, aspaldiko partez,  
ez du euririk egiten eta eguzki epela atera da.  
Udaberria badatorkigu, hauxe poza!

Mendira irten gara.  
Fruitarbolak, pagoak eta haritzak,  
ostoz berritu dira.  
Belardiak lorez bete fira  
eta erleak pozik dabilta.  
Kukua, ku-ku, ku-ku, hasi da kantatzen.

Txorien abestiak,  
loreen usain goxoak,  
landareen bizitza berriak,  
eguzkiaren beroak,  
pozez bete gaitu.



## UDA

Udako oporretan gaude.

- Nora joango gara gaur goizean?
- Goazen guztiok hondartzara!



Itsasertzean plisti-plasta ibili gara.  
Maddalenek eta Xabik igeri egiten  
badakite, Jonek eta Naiarak oraindik ez.

- Zergatik ez dugu egiten hondarrezko txalupa bat?
- Zergatik ez zulo handi handia, petrolioa aurkitu arte?
- Zergatik ez dugu egiten gaztelu bat bere mamu eta guzti?
- Zergatik ez gara futboleko jolasten?
- Ni Maradona naiz, zu Arkonada.

Goiz ederra pasa dugu eta neka-neka eginda bagoaz bazkaltzera.



## UDAZKENA

Udazkena etorri da.

Sagastietan sagarra dago,  
mahastietan, berriz, mahatsa.

Soroetan artoa dago,  
baratzetan, berriz, babarrunak.

Intxaurrondoetan intxaurrak daude,  
basoetan, berriz, gaztainak.



Sagarrarekin sagardoa eginez gero,  
mahatsarekin, berriz, ardoa;  
artoarekin zerria gizenduz gero  
eta San Martinetan hil, a zer afaria!  
Hasteko, babarrunak eta odolkia,  
edateko, sagardoa eta ardoa,  
postrea, intxaurrak eta gaztainak.

## NEGUA

Sukaldeko leihotik begira nago.  
Sudurra kristalaren kontra zapaldura daukat,  
eta arnasa botatzerakoan lurrina egiten du.  
Sukaldean epela dago, kalean, berriz, hotza.  
Kanpoan elurra gogotik ari du  
eta bazter guztiak zurituta daude.



Nire lagunek ateko tinbrea jo dute:  
- Zatoz gurekin elurrezko panpina bat egitera!  
Jantzi ditut galtzerdi lodiak, katiuskak,  
zamarra eta eskularruak.  
Nahiz eta kalean hotz egin,  
pozik noa lagunekin elurrezko panpina egitera.



## IKUSMENA



Begien bidez, ikusi egiten dugu. Begiak ditugulako ikusten ditugu  
gure aita, gure ama, gure anaiak, gure arrebak. Baita mendiak ere  
eta zelaiak, itsasoa, eguzkia eta izarrak.  
Begiak esaten digute gauzak zuriak, beltzak, urdinak ala gorrial  
diren, eta baita gauza horiek urruti ala bertan dauden ere.  
Betazalak, begiak estaltzeko ditugu eta betazalen ertzetan betileak.



## ENTZUMENA



Belarrien bidez entzuten ditugu hitzak, abestiak, deiadarrak eta  
zaratak. Entzuten dugun guztiari hotsa esaten diogu.  
Belarriek esaten digute zein diren hots atseginak eta hots  
atsekabeak. Ongi entzuten ez badugu, ezin genezake gauzen berri  
zuzen jakin. Ondo entzuteko buruak ere erne egon behar du.  
Haurrak ez badu burua erne edukitzen, ez du irakaslearen  
erakuspenak entzungo eta honela ez du ondo ikasiko.

## **USAIMENA**

Sudurraren bidez hartzen ditugu usainak. Sagarraren eta lore askoen usai gozoak atsegindu egiten gaituzte. Zakurrak urrutitik somatzen du bere nagusia. Sudurrak berehala esaten digu haize kaltegarria non dagoen, usai txarreko haizea osasunarentzat kaltegarria da.



## **DASTAMENA**



Ahoa eta batez ere aho zapaiaren bidez hartzen dugu gauzen zaporea. Sagar bat ikusi genezake, eta bere usaina hartu ere bai, baina bere zaporea hartzeko bere puskatxo bat ahoan sartu behar dugu.

Eztia, gozoa da, itsasoko ura, gazia, ozpiña, garratza. Sagar batzuk, gaziak dira; besteak, gezak eta beste batzuk, gazi-gezak.



## **UKIMENA**



Eskuaren bidez ikutzen ditugu gauzak. Berak esaten digu ikutzen duguna biguna ala gogorra den; lehuna ala lakarra; hotza ala beroa. Oinak ere laguntzen diote hontan eskuari. Berehala esaten digute oinak toki bigunean ala gogorrean gauden; toki zakarrean edo irristakorrean gabiltzan.

Askotan gure eskuak aldarazi egiten digute begiz oker hartu dugun iritzia. Begiz lehun agertzen zitzaiguna, eskuak, maiz, lakarra zela azaltzen digute.

## **JANTZIAK**



Neguan, jantzi lodiagoak erabiltzen ditugu. Jantzi beroenak, arlezkoak dira. Artilea ardiaren ileaz egina da.

Udaran jantzi arinagoak erabiltzen dira. Oihalaz egiten dira gure jantzi eta soinekoak.

Abarkak dira aspalditik gure baserritarrak ibiltzen dituzten oinetakoak.

Jantziak apurtzen direnean, jostorratzaz josten dira.



## **JANARIAK**



Gizakiak, ogia, barazkiak, aleak, haragia, arraina,... jaten ditu.

Goizetik hartzen denari gosaria deitzen diogu, eguerdikoari bazkaria, arratsaldekoari skaria eta gauekoari afaria.

Zaldiek, behiek, astoek, ardiek,... belarra jaten dute.

Zakurrak, lehoiak, tigreak,... haragijaleak dira.

Katuak, arraina nahiago du, oiloak, aleak jaten ditu, txori gehienek, aleak eta zomorroak jaten dituzte.

Ez da gehiegi jan behar, kaltegarria baita.



## **EDARIAK**



Edaririk onena ura da. Ardoa mahatsez egiten da ta sagardoa sagarrez. Behiak esnea ematen digu. Esnea, haurrentzat oso ona da. Gazta, gurina, yogurra,... esneaz egiten dira.

## ESAERA ZAHARRAK

Gaur egin dezakezuna ez biharko utzi.  
Merkea delako behar ez duzun gauzarik ez behin ere erosi.  
Gure burua goregi jaso nahiak, askotan parregarri uzten gaitu.  
Gutxitan damutzen zaigu gutxi jana; bainan gehiegi jana, askotan.  
Gogoko tokian, aldaparik ez.  
Ez gehiegi hitz egin, nahi ez bada huts egin.



## NERE ETXEA

Ikusten duzu, goizean  
argia hasten denean,  
menditxo baten gainean,  
etxe txikitxo aurre txuri bat  
lau haitz haundiren artean  
iturritzo bat aldean  
txakur txuri bat atzean!  
Han bizi naiz ni pakean.



Nahiz ez izan gaztelua  
maite dut nik sorlekua  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik urrun zait iruditzen  
nonbait naizela galdua;  
hantxe ni bainaiz sortua,  
han utziko dut mundua,  
galtzen ez badet zentzua.

## ZAKURRA ETA HARAGI PUSKA



Zakur bat zihoan behin ibai ondo batetik haragi puska ahoan zeramala eta zihoala-zihoala, uretan bere haragi puskaren islada ikusi zuen. Beste hau, berak zeramana baino haundiagoa zela iruditu zitzaion eta hortzetan zeramana utzita besteari kosk egin zion, eta honela gelditu zen ez egitazko puskarik ez gezurrezkorik gabe. Hori gertatzen zaie askotan, berena gutxi delako, besteena harrapatu nahi dutenei.



## HEGAZTIAK



Aidean dute bere bizitokia eta han ibiltzen dira gora eta behera arin eta bizkor. Bere kabietan erraultzak egin eta arraultzetatik txitoak ateraten dituzte.

Hegaztiak era askotakoak dira. Tzepetxa oso txikia da eta arranoa berriz, handia eta indartsua.

Goizaldean, eguna hasten denean, txoritxoak abestu eta abestu aritzen dira, beren txiruliruak atseginez betetzen gaituzte.



## ARRAINAK



Arrainak urpean bizi dira eta urpean arnasa hartzen dute. Uretatik ateratzen baditugu, berehala hiltzen dira.

Itsasoan sortzen diren arrainei, ur gazikoak deitzen zaie eta haorien artean sardina, legatza eta makailaua daude.

Besteak, ur gezakoak dira, eta hauetan muarraina oso ezaguna da. Beste batzuk, berriz, ur gazia eta ur geza biltzen den tokin bizi izaten dira.

## HAIZEA



Haizez inguratuak bizi gara, alde guztietatik. Haizerik gabe ezin bizi gintezke. Arnasa hartzean, haizea sartzen zaigu barrenean eta barruko odola garbitu egiten dugu. Baina hortarako haize garbia behar da. Mendi gainetako haizea, gehienetan behekoa baino garbiagoa izaten da.

Toki itxietako haize zikina hartzea kaltegarria da, horregatik ahal den guztietan leihoak zabalik dituzula lo egitea ona da, haizea berritzeko.



## ELURRA



Neguko eguraldi txarretan, goietan, hotz dagoenean, auriarenordez elurra egiten du.

Umetan nor ez da pozik egon, mara-mara elurra ari duela ikusten? Elurra ez da euri tantak hotzak gogortua baizik. Tanta txiki horiek elkarganatuta elur maloa egiten dute.

Elurra polita da egun batzuetan ikusteko, baina azkenerako aspertu egiten du.



## IZOTZA

Hotz haundia egiten duenean, ura gogortu egiten da. Hotzak gogortutako urari, izotza esaten diogu.

Izotz puska bat sutondoan ipintzen badugu, ur bihurtzen da, eta orduan izotza urtu egiten dela esaten dugu.

Izotzaren antzera berotan urtzen dira burnia, beruna, zilarra, urrea,...

Herrialde batzuetan, oso hotz haundia egiten duelako, ibaiak eta baita itsasoa ere izozten dira eta gizonak gainean ibil daitezke.

## SUMENDIAK



Mendi batzuk, beren muturretik hautsa, kea eta sua botatzen dute eta sumendiak deitzen zaie.

Askotan ke hautsa dariotela egoten dira luzaroan, baina noizean behin sutagar hasten direnean, beldurra sartzen dute.

Sumenditik urtua ateratzen den laba gorriak herriak galdu eta kiskali izan ditu.

Italiako Napolin dagoen Besubio sumendia oso ezaguna da. Orain bi mila urte berak hautspear estali zuen Ponpei herria, urte asko ez dela, hautsa kenduaz, hantze agertu dute lurpetik italiarrak.



## BITXIKERIAK



\* Aita, futbolzale amorratua, telebistaz partidua ikusten ari da buru-belarri. Seme txikiak, eskolarako egin beharreko lanekin sartu eta galdetzen dio:

- Aita, non daude Alpeak?
- Galdegiozu amari, berak gordetzen du den dena eta.

\* Azterketa batean, ezer zuzen erantzun ez duen ikasle bati galdetzen dio irakasleak:

- Azken galdera bat egingo dizut. Ongi erantzuten badidazu, aurrera. Bestela, irailerako. Zenbat ile ditu zaldiaren isatsak?
- Hogeita hamar mila bostehun eta laurogeita hiru.
- Eta nola dakizu?
- Barka jauna, baina hori beste galdera bat da eta bat bakarrik egingo didazula esan duzu.

## **ASMAKIZUNAK ?**

- \* Zein da zuloz betetako animalia, ura irensten duena?  
(p, s, e, o, a, j, n)
- \* Zer ematen du behiak argal-argal dagoenean?  
(a, e, p, n)
- \* Zer dago itsasoaren eta hondartzaren artean?  
(z, t, s, s, t, i, a, e, r, a)
- \* Zer da zoparekin batera ateratzen dena eta jaten ez dena?  
(e, l, i, g, o, a, r, a)



## **IGARKIZUNAK =**

Begi bat ahaltso  
gauerdian disdiratsu  
itsasoan dago argi  
marinelak irits daitezen  
etxera osasuntsu.

Sugea bezala  
lepoan bil-bil,  
hotza kentzeko  
bueltak eman  
eta zintzilik.

Zenbat eta beteago  
orduak eta arinago,  
orduak eta gorago,  
baina ezin dizut eman  
pista gehiago.

Basoetan daude ugari  
baina nola ikusiko ote  
zenbat eta gehiago hazi  
beherago baitaude?



## **AHOKORAPILOAK**

Matxingorringo  
Matxingorringo  
gaur eguzki ta  
bihar euri egingo.

Beleak Berreagara  
zerbait daroa;  
badaroa, berea daroa;  
baba errea ahoan daroa.

Arre horra,  
aurrera arraioa!

Olagarroaren erro errea  
larra errean gora.

## ZIBUAN ZIBU

Zibu ta zabu  
zibuan zibu  
honuntz ta haruntz  
goruntz eta beheruntz!  
Goazen dorreraino.  
Baina nora zoaz?  
Noraino?  
Eramango ote nauzu  
hodeietaraino?  
Goazen, goazen  
zeru urdineraino.  
Agur izar, eguzki  
eta ilargi  
zeruraino narama  
zibuak ni.

Amets urdin bat dela  
dirudi  
zibu eta zabu  
zibuan ni.  
Eta orain bagatoz  
poliki-poliki.  
Penaz agurtzen ditut  
izar, hodei  
ilargi eta eguzki.  
Geldi, geldi  
hanka puntak  
heldu diote lurrari  
zibu ta zabu  
zibuan zibu  
zibuan ni.



## HITZEKIN JOLASEAN

Nork esaten du ez direla sei  
hiru txekor eta hiru behi?

6 6 6

5 5 5

Nork esaten du ez direla bost  
hiru hagin eta bi hortz?


Nork esaten du ez direla hiru  
Moro, Mara eta Miru?

3 3 3


7 7 7

Nork esaten du ez direla zazpi  
Ea, Leitza, Derio, Oion, Plaentxi,  
Matxinbenta eta Legazpi?


## HILABETEA



**Urtarrila** lehenengo,  
bigarren **otsaila**,  
hirugarren **martxoa**,  
gero **apirila**,  
**maiatza**, jakin zazu  
da bosgarren hila,  
seigarren **ekaina**,  
ondoren **uztaila**.



**Abuztua** guretzat  
hilabete ona,  
**iraila** eta **urria**  
gora udazkena!  
**Azaroa** nola den  
hamaikagarrena,  
azkena **abendua**  
hamabigarrena.



## AZERIA ETA OILARRA

Galdakaotik Bilbora plazara zetozen bi emakume, eta Basauriko bidegurutzean azeria ikusi zuten, ahoan oilarra zeramala.

- Ene!... Badarama gure oilarra! – esan zuen emakumeetako batek.

Eta orduan oilarrak azeriari:

- Esaiezu orain ez naizela beraiena, zurea baizik.

Azeriak, hori esan nahian, ahoa zabaldu zuenerako, oilarrak ihes egin zion asto gainera, bertatik kukurruku ederrak joz.



## ETXE BATEN HISTORIA

Arkitektoak etxearen eraikuntzarako behar diren kalkuluak egiten ditu eta proiektua prestatzen du.



Igeltseroek makina handien laguntza izaten dute beren lanerako.

# B

Linterneroak sukaldeko eta komuneko ur tuberiak prestatzen ditu.

# U

Margolariak dena apain-apain eta dotore uzten dute.

=

# E

Igeltseroek gero etxea hor eraikitzeko, eskabadorak zuloa prestatzen du.

Elektrikariak argindarraren kableak, entxufeak, lanparak eta argindarrarekin erabiltzen diren beste tresnak prestatzen ditu.



## ELURRETAKO TXORIA

Elurretan txoria  
txiruli...txiruli...txin  
kantatu nahi eta ezin.  
Hoztu zaio bijotza  
laster du heriotza,  
txiruli...txiruli...txin  
mututzen ari da,  
kantatu nahi eta ezin.  
Txiruli...txiruli...txin.




Baina ez da hilko  
elurretako txoria!  
Nik kendu dizkiot  
eskuetan harturik  
mokoan daukan izotza  
eta bihotzeko hotza.  
Etxera eramango zaitut  
txoritxo txorrotxiolaria.  
Gorderik dauzkat zuretzat  
ogi apurrak eta garia.

## NEGUKO GAUAK

Hodei beltz eta grisez  
estali da zerua  
txuriz jantzita dauka  
Aizkorrik bere burua.  
Abenduak ekarri digu  
aurten ere negua.



Ziu-fiu  
txip eta txop  
haizeak eta euriak  
kax-kax  
nere gelako leihoa  
jotzen dute gauetan.  
Maire artean izkutaturik  
goxo-goxo eta bero  
orduan hasten naiz ni  
eguzkiarekin ametsetan.



## ZUHAITZ BAT NOLA ALDATU

Lehenbizi lurlean zulo bat egiten  
da eta barruko lurra ondo  
harrotzen da.

Gero zulo barruan harriak eta  
hondar pixkat botatzen da, ura  
ondo filtra dadin. Gainean lur  
pixkat botatzen da.

Ondoren zuhaitz landarea zuloan  
sartzen da eta lurra botatzen da  
tinko geratu arte.

Azkenik zuloa lurra betetzen da  
eta ondo zapaltzen da, zuhaitz  
landarea okertu gabe.

Dagoeneko zuhaitz landatea  
aldatuta dago. Ondo ureztatzea  
besterik ez da falta.



## LURRUNTZIO



Lurrun, lurrun, plof!  
Esperimentuak egitera gatoz.

Ura eta hautsarekin  
kristalezko ontzietan  
egin dugu tinta

Lurruntzioren laguntzarekin.

Gorria, beltza, urdina,...

hara hemen tinta majikoa

bat, bi, hiru, lau,...

zazpi koloretakoa.

Sartu dugu pintzela tintatan

eta ortzadarrak margotu ditugu

laborategiko kristaletan

eta baita ere

Lurruntzioren kopetan.



## ENE UR MIRAGARRIA

Ene ur miragarria

itsasoan ugarria

ibaietan saltaria.

Beroarekin lurrina zara

hoztean, berriz, euria.

Hortik dator iturria

edari maitagarria

kentzen duzu egarria.



## ZERGATIK

Zergatik ez dute  
izarrek bizarrik?  
Zergatik ez dute izaten  
zuhaitzek sukarrik?  
Zergatik ez du ematen  
haritzak intxaurrik  
eta urkiak sagarrik?



Izarrek bizarra balute  
eta zuhaitzek sukarra  
emango luke haritzak intxaurra  
eta urkiak ere bai sagarra.

Baina orduan...  
txingurriak edukiko luke  
elefantearen indarra,  
besoa izango litzateke iztarra,  
astoak joko luke kitarra,  
barre egiten hasi eta  
aterako litzaiguke negarra.  
Zure aitona gazte-gaztea  
izango litzateke eta  
zu zahar-zaharra.



Eta hori zergatik?  
Neuk ere oraindik ez  
dakit.



## KAPITAINA

①  
Txalupatxo bat badut  
egurrez egina  
neuk egin nuen eta  
neu naiz kapitaina.

②  
Itsasoan sarturik  
banoa aurrera  
olatu bat sartu zait  
txalupan barrura.

③  
Itsasoa haserre  
zerua ilundu  
haizeak beharko dit  
kaiera lagundu.

④  
Beldurra eta hotza  
hasi naiz sentitzen  
haizeak ere ez dit  
bat ere laguntzen.

⑤  
Ez dakit non nagoen  
eta nora noan  
haizearen jostailu  
hemen itsasoan.



## **INDIOA**

Behin indio batek bere burua hil nahi zuen eta horretarako eskumuturrean soka bat jarri zuen.

Orduan bere lagunak esan zion:

- Baina, zertan ari zara? Zure burua hil nahi baduzu, lepotik jarri behar duzu soka.

Eta orduan esan zuen indioak:

- Jarri dut lehen, baina ito egiten naiz.



## **PERNANDO**



Behin Pernandori bere emazteak esan zion berriz berandu etortzen ba zen ez ziola etxean sartzen utziko. Eta gau hartan Pernando berandu etorri zen eta bere emazteak ez zion etxean sartzen utzi. Orduan Pernando erre kara joan zen eta harri batzuk bota zituen uretara. Bere emazteak uste zuen Pernando erre kara erori zela eta hain korrika atera zen etxetik, atea irekita utzi zuela. Eta orduan Pernando atetik sartu zen eta emaztea negarrez utzi zuen.

## **PERU TXOKOTE**

Peru Txokote oso mutil txorua zen. Behin batean amak esan zion iturrira joateko eta ura ekartzeko. Peruk, ontzi bat hartu eta iturrira abiatu zen. Litro bat ur hartu eta bazihoan etxera, eta ontzixua buruan zuela, beroarekin urtu egin zitzaion ura eta etxera ailegatu zenean:

- Tori, ama, hemen duzu ura.

- Baina, Peru, hemen ez dago ur tantarik.

- Ui, ui! Hemen lapurrak daudela uste dut.

- Zu txoro bat zarela, gertatzen da hemen.

Eta amak makila hartu eta Peruren atzetik joan zen.


## **HOROSKOPOA**

### **ARIES**


Gehiegi pentsatzen dituzu gauzak eta indar guztia horretan joaten zaizu. Axolagabeagoa izan behar duzu eta espontaneitate handiagoz jokatu. Arazoak erraz menderatuko dituzu horrela. Bestalde, sorpresa atsegina izango duzu laster. Kanpoan bizi den aspaldiko lagun batek bisita egingo dizu.

### **TAURUS**

Lana nola edo hala menderatua duzu eta arlo horretan bakea iritsi zaizu. Baina dena ez da arrosa kolorezkoa; arazo sentimentalak izango dira berriro. Bestea ahuntzaren gauerdiko eztula bezala sentitzen da zure ondoan eta gogor egingo dizu.



### **GEMINI**



Zorioneko zaude. Esku ona izango duzu garai honetan adar jokoetan. Baina ez ezazu burua gal. Garaiz erretiratzen ere jain behar da. Harreman kontuetan ezer berririk ez. Betiko lagun petralekin ibili beharko duzu, pauso ausart hori ematen ez baduzu behintzat.

### **CANCER**

Asti gehiago behar duzu zeure gauzetarako. Garai ona duzu irudimenari atek zabaltzeko. Zeure nortasunari on egingo dio horrek. Bestalde, arazo txikiak dituzu zeure familiarterko norbaitekin. Baina zeure aldetik saiatzen bazara, erraz gaindituko dituzu tirabira horiek.

## **LEO**

Gutziz sentibera zaude azkenaldi honetan. Eguneroko ezbehar txiki horiek min handia egiten dizute. Baina, bestalde, harreman estuagoak egingo dituzu zeure adiskideekin. Aspaldian ez bezala azaleko mozorroa hautsi eta barruko egonezinak egertuko dituzu. Mesede handia egingo dizu horrek.

## **VIRGO**


Gauzak ondo atera zaizkizu orain arte eta jarrera ezin baikorragoa duzu bizitzaren aurrean. Lanak ez dizu aparteko burukominik ematen. Bestalde, lagun berriak ere egingo dituzu laster. Ez jokatu itsu-itsu. Arriskutsua da harreman kontuetan pausoak azkarregi ematea.

## **LIBRA**

Dirua lagun, laster hainbestetan atzeratutako proiektu hori aurrera aterako duzu. Dena den, gogotik lan egin beharko duzu gauza guztiak behar bezala zuzentzen. Estutasun ugari izango duzu eta horrek zakar jarriko zaitu behin baino gehiagotan. Harreman pertsonalak bigarren mailan geldituko dira.



## **ESCORPIO**



Konpromezu berriak hartu dituzu urte honetarako. Hamaika zalantza izan duzu aurretik, bihotzak baietz, buruak berriz, ezetz. Baina azkenean onartu dituzu lotura horiek. Orain izango dira kontuak, gauzak aurrera ateratzen.

## **SAGITARIUS**

Burua nahasi samarra duzu, arazo sentimentalak direla eta. Harreman horien alde on eta txarrak ikusten dituzu eta ez dakizu jarraitzerik merezi duen. Lanean ere somatzen da egoera aldrebes horren eragina. Axola handirik gabe egindako lantxo horiek ez dira inorentzat eredu.

## **CAPRICORN**

Zure lan edo ikasketetan gauzak zuzentzen hasiak dira. Baina den-dena ez dago egina; gogor saiatu beharko duzu oraindik. Psikosasunez ere ez zabilta batere gaizki, finkoago sentitzen bait duzu zeure nortasuna. Diruz, berriz, eskas ibiliko zara.

## **AQUARIUS**



Ezbehar horrek lehengo ilusioak pixka bat lainotu dizkizu. Baina, hala ere, ez duzu atzera egingo. Hurrengoan hobeto aterako dira gauzak seguraski. Bestalde, hemendik aurrera asti gehiago izango duzu lagunekin ibiltzeko. Elkarrekin bidaia txikiak egiterik ere izango duzue.

## **PISCIS**

Arazo sentimentalik ez duzu izango garai honetan, zeuen harremanak argi eta garbi definitu bait dituzue. Lasaialdi horrek indarberritu egingo zaitu eta hauxe duzu zeure bideari ekiteko parada ezin egokiagoa. Fruitukorrak izango dira orain egingo dituzun lantxo horiek.

## BERTSOTAN

Lepo gaineke lapiko hontan  
sudur begi ta belarri  
kokots gainean ahoa eta  
beheraxeago eztarri.  
Batzutan gose izaten naiz ta  
beste batzutan egarri  
goxokizkoa izango balitz  
jango nuke Aizkorri.

Lurrerainoko bi hanka luze  
eskubia ta ezkerre  
haien gainean haruntz ta honuntz  
ibiltzen naiz tirri-tarra.  
Irrist egin dut izotz gainean  
erori naiz, jo dut lurra  
eskumuturra hautsi zait eta  
orain ezin jo kitarra.

## UDAZKEN GOIZ BATEAN

Udazken goiz batean  
basora nindoala  
haizea zuhaitzetan  
lapurtzen zebilen.  
Hamar hosto airean  
beste zazpi lurrean  
hantxe ibili nintzen  
hosto denak zanpatzen.  
Zirrin-zirrin-zar, zirrin-zirrin-zar  
hantxe ibili nintzen,  
zirrin-zirrin-zar, zirrin-zirrin-zar  
hosto denak zanpatzen.



Hizea dabil  
firin-faran,  
zuhaitzak oker  
hostoak hegan,  
ateak kriskiti  
ateak kraskata,  
kristalak klink  
kristalak klank,  
haizea eta haizea  
udazkenean.

## NEGUKE EGUN BATETAN

Zeru urdinik ez da ikusten  
hemendik begiratuta  
mendi tontorrek ageri dira  
txapel txuria jantzita  
zuhaitzak berriz historik gabe  
loretxoak ximelduta...  
txantxangorriak burua dauka  
luma artean sartuta.

Gizon potolo txuri-txuria  
gaur egin dugu elurrez  
sudur gorria, begi urdinak  
azenario ta botoiez.  
Ehun kilo baino gehiago ditu  
dirudi dagola barrez  
ta eguzkia azaldutzean  
hasiko zaigu negarrez.

## **TXITA BIHURRIA**

NARRATZAILEAK: Bazen behin txita bihurri bat beti amaren ondotik urrutira joaten zena. Behin amak esan zion:

OILOAK: - Aizu, txitatxo, ez joan urrutira, galdu egingo zara eta.

TXITAK: - Ez naiz joango, ama.

NARRATZAILEAK: Baina txitatxo bihurria joan egin zen.

TXITAK: Amak ez nau ikusten eta zamorroak harrapatzera noa, gero jateko.

OILOAK: Nere txita bihurria non ote dabil orain ere?

TXITAK: Hara hor matxinsalto bat. Horixe jango dut.

MATXINSALTOAK: Txita txolin honek ez nau jango, ez. Susto ederra eman behar diot.

NARRATZAILEAK: Eta salto egin zuen matxinsaltoak eta txita begian jo zuen.

TXITAK: Ai, ai, ai! Begian jo nau!

NARRATZAILEAK: Txita amarengana joaten da korrika.

OILOAK: - Esan dizut ba ez joateko urrutira. Zatoz hona, begia sendatuko dizut eta.

NARRATZAILEAK: Amak begia sendatu zion eta geroztik txintxo-txintxo amaren ondoan ibiltzen da txitatxoa.

## ANIMALIEN ASMAKIZUNAK

Batetik bestera  
ibiltzen da azpitik,  
zulo asko egiten  
ezer ikusi barik,  
zuk ere ez pentsa  
erraz harrapatzerik.

(Satorra)

Beltz, txiki eta langile finak  
geldi egonezinak,  
beti dabilta batera eta bestera  
baina ezin hautsik atera.

(Inurriak)

Txaleko zuriz  
eta frak beltzez jantzia,  
hegarik egiten ez duen  
itsasoko hegaztia.

(Pinguinoa)

Beti harro-harro doan  
oihaneko erregea  
ikusten baduzu zirkoan  
preso dagoen seinalea.

(Lehoia)

Oroimen eta usaimen handikoa  
larru gogorreko aberea,  
sudurra ere izugarrizkoa  
munduko luzeena berea.

(Elefantea)

Hankarik ez  
eta sigi-saga dabil,  
besorik ez  
eta zuhaitzetan kiribil.

(Sugea)

Oso astiro ibiltzen naiz  
baina ez naiz alferra,  
noan lekuan uzten dut  
zilarrezko hari ederra.

(Marraskiloa)

Gogaikarri samarra da  
eta txiki-txikia;  
*zor, ia* ez dit ezer zor,  
baina naizenez oso garbia  
ez dut laguntzat nahi.  
Zer den, esan dizut guztia.

(Zorria)

Baditu bere armak  
goiko biztanleak,  
euliak harrapatzeko du  
sare fina ehuleak.

(Armiarma)

Zezenaren adarrak  
indarra ere berdina  
antzerakoak hankak  
baita ere buztana.  
Zer izan daiteke  
ez bada zezena?

(Idia)

Azpia zuri  
gaina beltz,  
udaberrian etorri  
neguan ihes,  
hegalari beti  
gutxitan oinez.

(Enara)

Lumaia ederra dut  
handia eta zorrotza mokoan,  
beti errepikatzen dut  
entzun eta ikasitakoa.

(Loroa)

Aldean baduzu  
haren bila etengabe,  
ez baduzu  
zuretzat askoz hobe.

(Arkakusoa)

Txerriaren ahaide  
ehiztarien harrapakin,  
basoan du betetzen  
urdaila ezkurakin.

(Basurdea)

Belarriak luze  
isatsa motz,  
beti korrika eta saltoka  
ez da izango hotz.

(Erbia)

Uretan nabil baina  
ez naiz arraina,  
gauetan kantari  
nagokio ilargiari.

(Igela)

Beti kar kar kar  
ikasle alferra,  
beti kir kir kir  
gure \_\_\_\_\_

(Kilkirra)

Usaimen handiko aberea  
etxe barruko ehiztaria,  
ez baduzu zaintzen sukaldea  
jaki goxoen harraparia.

(Katua)

Batzuk dira hegalariak  
besteak korrikalariak,  
harrapatzen baditu katuak  
uzten ditu marraskatuak.

(Sagua)

Etxe - zaindari  
edo ehiztari  
edo itsuen lagungarri;  
mehea nahiz gizona  
gizonaren laguna.  
Nola du izena?

(Txakurra)

Nire etxeak ez du  
ez leiho ez aterik,  
baina hil egiten naiz  
irtenez gero handik.

(Arraina)

Herenegun arraultzetxoan  
atzo, berriz, zorrotxoan,  
bihar ibiliko naiz zeruan  
txoritxo baten moduan.

(Tximeleta)

Lehenago guk eramaten genuen  
gizona gainean,  
orain berak garamatza  
autoaren barnean.

(Zaldiak)

Tinta badut  
baina ez idazteko,  
hanka asko ere bai  
baina ez ibiltzeko,  
harroa naiz erdia  
eta erraza asmatzeko.

(Olagarroa)